

# Ollo kontseilariak PLEren adierazpena babestu du, mugako pasabideak irekitzea eskatuz

Pirinioetako Lan Elkartea itxieraren aurka agertu da berriro, eta Mugaz Gaindiko Mekanismoa aplikatzea defendatu du

**Asteazkena, 2023ko Urtarrilaren 18a**

Herritarrekiko Harremanetarako kontseilari Ana Ollok Pirinioetako Lan Elkartearen jarrera babestu du. Izan ere, bihar Bartzelonan egingo den Frantzia-Espainia goi-bilerak, “aukera ezin hobea ematen du Arantzazun PLEk bere 40. Osoko Bilkuran onartutako lehendakarien adierazpenean jasotako akordio nagusiak kontuan hartzeko”.

Aipatu akordioen artean, “aipagarria da 2021. urteko urtarriletik agintari frantsesek blokeatutako mugapasa bideak zabaltzeko beharra nabarmentzen duena; aldarrikapen hori erabat partekatzen du mugaz gaindiko eremuko aktore multzoak, eta inplikaturik dago, erabat integratutako mugaz gaindiko herritar multzo baten eraketan sakontzen jarraitzeko behar baten jabe izanik”. Era berean, adierazpen horrek aipatzen du “Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Europako Mekanismoa (ECBM) definitu eta aplikatzeko behar saihestezina, lurralde transpirinotarrak ebatzi behar ohi dituen lege- eta administrazio-oztopoak gainditzen lagunduko duen baliabide bezala”. Ildo horretatik, “Espainiako eta Frantziako estatuei hala nola Europako Batzordeari eskatzen zaie noranzko horri eustea, adostasun bila”.

Bestalde, defendatzen du “hornidura energetikoaren jatorriak dibertsifikatzeko hala nola deskarbonizazioa sustatzeko mesedegarriak liratekeen azpiegitura transpirinotarren garapena babestea, energia berriztagarrien iturriak baliatuz, esaterako hidrogeno berdea eta biometanoa”. Eta Osoko Kontseiluak dokumentuan erreklamatu zuen “Autonomia Eskualdeak eta Erkidegoak erabaki prozesuetan barne hartzea”.

Azkenik, aipatu adierazpenak nabarmentzen du “hidrogeno berriztagarria sustatzearren lankidetzaren transpirinotarreko Protokolo baten erabilera bultzatzeko konpromisoa, xedea izanik hidrogenoaren ekonomia hedatzeko mugaz gaindiko eremu bat sortzea, lurralde horien posizionamendua sendotzeko eta estatu hala nola Europa mailako estrategietan finkatutako deskarbonizazio helburuak lortzea ahalbidetzeko”.

PLEko kideen arabera “Espainiako eta Frantziako Gobernuak elkartzeak aukera bikaina suposatzen du, gai hauen harira, Estatu bien arteko harremanak sendotzerakoan eta prest azaldu dira ekarpena egiteko, dagozkien eskumenetatik, eztabaidari nahiz Pirinioetako lurraldeen lehentasunetan aurrerapausoak emateko lankidetzari”.

Adierazpen osoa eskuragarri dago [euskaraz](#), [gaztelaniaz](#), [katalanez](#), [frantsesez](#) eta [okzitanieraz](#).

## Lurralde lankidetzaren sustatzea

Pirinioetako Laneko Erkidegoa (PLE), erronkak kontuan hartuz, aberastasunak zainduz eta lurralde lankidetzaren sustatuz, gehienbat bere lurraldeetako herritarren bizimoduaren onerako mugaz gaindiko lankidetzaren bultzatuz, Pirinioetako mendigunearen garapenari ekarpena egiteko helburu nagusia duen nazioarteko partzuergoa da.

PLEko kide dira Pirinioetako lurraldeak: Akitania Berria, Okzitania, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorrako Printzerria.

PLE 1983an sortu zen, Pirinioetako eremua beste muga europar batzuetan dauden erako mugaz gaindiko lankidetzaren egitura batez hornitzekotan dabilen Europako Batzordearen babesarekin.

2005ean, PLE partzuergo bihurtu zen, Espainiako zuzenbide publikoarekin lotura duen entitate juridikoa izanik; eta horrek esku-hartzeko orduan bultzada berri bat eman zion, bereziki funtsen kudeaketaren eta Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2021-2027), POCTEFA 2014-2020 nahiz POCTEFA 2007-

2013 programa europarren esparruan.